

ALBERTO GABIKA, KALEAN

Alberto Gabika Lekeitioko abadea, Zamorako espetxean zazpi urte egon ondoren, kaleratua izan zan orain dela egun batzu. Berri on hau ezagutzean Lekeitioko herriak ongi etorri alaitsu eta bero bat abadeari egitea erabaki zuen eta ehun lagun bat elkartu zen Lekeitioko erdian bere zain. Itxaroten zeudela, karneta eskatzen hasi ziren hango goardia zibilak eta, abadea berebilaz iristean, gogor hasi ziren jotzen taldeko lagunei. Gabika abadearen anaia bat, gogor zaurituta, eritegira eramana izan zen, matrail ezurra apurtu baitzioten. Detenitaren artean dago gainera Karlos abadearen anaia hau.